

Joxan eta asmakizunak

Kaixo, lagunok! Sorpresa! Kati-Katixa ikusiko zenutela uste zenuten, ezta? Ba, ez, gaur, tranpa bat egin diot: grabatzeko dena prest zeukanean, enkargu batera bidali dut alaba. Bai, alaba, ondo entzun duzue... ematen ez badu ere, itxuragatik diot..., Kati-Katixaren aita naiz, JOSE ANTONIO GUZMAN, orain dela 55 urte sortua, eta, ezkondu nintzenetik JOXAN, zuen esanetara.

Ezkondu orduko hasi nintzen gaueskolan, eta, begira, euskaldun peto-pettoa naiz. Erraza da. Animo!

Nire lehenengo bideo honetan, asmakizunei buruz berba egingo dizuet. Gaur egun, badirudi dena asmatuta dagoela, baina ez, gazteok, jendeak bueltak eta bueltak ematen dizkio buruari, eta eguneroko gauza arruntak errazago eta erosoago egiteko hainbat gauza bitxi asmatzen ditu!

Sarean ibili naiz bila, eta, apur bat kostatu bazait ere, batzuk topatu ditut. Hona hemen asko gustatu zaizkidan hiru, ikusiko duzue ze bitxiak diren!

Hemen duzue, maiteminduentzako aterkia! Nola paseatu egun euritsuetan bikotekidearekin goxo-goxo eta busti gabe? Ba, aterki bikoitzarekin.

Kar-kar, ederra, ezta? Euskal Herrirako oso aproposa!

Aterki honek kirten bakarra dauka, baina, zabaltzean, lotutako bi aterki dauzka. Horrela elkarren ondo-ondoan eta busti barik ibiliko zarete.

Hori bai, jasotzen dugunean duen tamaina ez da makala!

Begira beste hau: Nork ez du udan madarikazio bat baino gehiago bota kukurutxo izozkia urtu eta eskuak zikintzen zaizkionean? Ba, bukatu dira madarikazioak! Hemen dugu kartoitxo miragarria! Izozia urtzen denean, kartoitxoan geratuko da, eta gure eskuak garbi-garbi! Eguzkiaren beroak ez digu izozkia jateko plazera zapuztuko, ez horixe!

Zer, ederra, ezta?

Eta, bukatzeko, garraiobideetan eroso eta lepoa bihurritu gabe lo egiteko kaskoa! Bentosa kristalean ipini eta lotara trankil-trankil! Bueno, lagunok, gero saiatuko naiz youtuberren jartzen. Youtube esaten da, ezta? Edo youtuf? Bueno, berdin dio... Nola itzaltzen da tramankulu hau? Non dauka OFFen botoia?